EUSKALEŔIKO BEŔIAK

Gipuzkoa'ko Eŕetore jaun guztiak, batzar aundi bat egin dute Donostia'n. Baseŕi bi eŕe: Mungia'n eta Azpeiti'n.---Loteriko irugaŕen saria Iruña'ra.---Dantza lotuen kaltez.

ERETORIEN BATZARA

Lengo astelenian, Donosti'ko Andre Maria'ren txadonetko meza nagusi ondoren, izan zan Gipuzkoa'ko Eretorien batzaŕa, Gazteiz'o gure Gotzai maitagaŕia buru ala.

Batzaŕaren aufetik eta ondoren paŕingi baten lantegietan apaiz asko izan zirala esan digute, ta misten degu. Gurera biderik, ez u noski, oraindik ere iñork ikasi: apaiz bakaŕk iain giñuzen ARIA'ren lantegietan. ¡Zorionak lei! Beste ganerakoak, uŕengo gialdian etoŕiko ote diran zai gaude raingoz.

Gotzai jaunaren itzaldiaren beŕi ize-luze emateko lekurik ez dejun ezkero, berak ikutu zituan aiak aitatuko ditugu.

Apaizak irten bear du eŕira: rixe izan zan gairik nagusiena. Aŕia apaizagandik igesi ibili baabil ere, apaiza eŕaren biła joan earean dago. Lenbizi, *giltzonak* ilatu bear ditu; uŕena *emakumezoak;* gero gizonezkoen artean *ekazariak;* ondoren *langileak*, eta zkenik *aurtxoak*, bai *aurtxo* bigun naitagariak. Oŕa or zelai aunliak, saro zabalak, maasti ugeiak. Oŕa or non lan egin. Gotzai aunari txalo asko jo zitzaizkion ere itzaldia bukatu zuanean.

Ondoren Arue jaunak ere lefo amitsu batzuek irakuŕi zituan, ola lan egin bear dan erakutsiaz. zkenik Muxika jaunak Jesus'en liotza'ri eskeintzea egin zuan.

Bazkaria ere alkaŕekin izan zuen eŕetore guztiak. Bukaerakoan, olosa'ko Euskaristi Batzaŕean al ag ikusiko zirala esan zuan Gotzai jaunak.

ESKATXA BATEN ERIOTZA

Avenida deritzaion kaŕikako nazazpigaŕenean bizi zan Kobos' ag Margarita, mirabe Txoritxua ere garaian leiotik etxeratzea azzitzaion, eta gero etxeratzeraoan esku-eskaŕera edo dalako baŕa igozan txoria artzeko. Bantza egin da erori zanean gandoz bea jo-ta il da gelditu zan.

TXEA ERE

Bizkaia'ko Mungia'n «Itufizari» eritzaion basetxea eŕe da. Bei baituek eta etxe biziteko beste zer do zer bertan berotu zirta. Kalak azi'kamaŕak dira.

ZPAR BELTZA

Asteazken goizeko iruretan, Amasa'n, Arbide ta Balerdi'tar Martin Pantzeska jauna, eŕi artao eŕetore jaunaren aita, il da.

Arbide'tar Balero euskaltzale argiari gure atsekabe aguŕa damaiogu, emenditxek gure laguntza eskeintzen diogula.

Goian bego Martin Pantzeska'ren gogoa.

GAZTE BAT ITO

Pasai'ko gazte bat itxaso zabalean aŕantzan zebilela urera ero ri zan, saŕe batzuetan naspiłatu zaŕiko. Bere lagunak alegiñak egin aŕen bere alde, ito ta ontzirątu zuten.

LOTERIA IRUÑA'RA

Iła onen ogeita batgaŕeneko txoxketan, irugaŕen saria Iruña'rako izan da: 70.000 peseta. Oietzaz gaŕera sari txiki batzuek ere izan dituzte Iruñaŕak.

ALMANDOTZ'KO AŔOBIAN

Almandotz'ko aŕobian oker bat izan da. Aŕipiła aundi bat erori zan eta azpian artu zuan Sanzbefo'tar Pantzeska langiłea, bertan il da utzirik. Zaurituak ere ba-dira, oietako bat Jauregi'tar Indałexio gogor xamar eta biguñago beste norbaitzuek.

ALDUNDIA

Iła onen amazazpian, Irun'go «Paseo Kolon» deritzaneko lanak norentzat izan erabakitzea izan zan Aldundiaren Jauregian.

Merkiena eskeñi duana *Aŕuti'*tar Justo izanda, lanak 379.000 pesetaz egingo dituała adieraziaz. Bein-beineko beintzat, jaun aŕi eman dizkiote lanak.

Donosti'ko Udala

LA PERLA'KO DANTZAK

Donosti'ko jaun agurgaŕi batzuk idazki mamitsu bat zuzendu diote. Donosti'ko Udalari «La Perla»ko dantzak dirała ta. Dirudienez, etxe ertan dantzak jartzeko asmoa agertu du Udalak: ez ordea euskal dantza garbi-txukunak, oraingo dantza lotu ustel oiek baizik.

Baño, nabarmenkeri lotsagaŕia litzake len dauden dantza-leku likitxaz gañera, Udala'k bere gain beste oŕeŕiko bat artzea: oŕegatik bada, Loidi'tar Bizente, Brunet'tar Agustin, Uŕeta'tar Mikel, Ezkurdia'tar Antonio, Eleizegi'tar Kaietano, Irigoien'dar Pedro, Gros'tar Jose, Arozena'tar Pausto, Urbnia'tar Jose ta Beñaran'dar Jose'k gorago aitatuko idazkia zuzendu diote Donosti'ko Udalari.

GIPUZKOA

AIZARNA

EGI-ZALE»'RI

Orain arte oso zintzo eta arduaz idatzi dituzu eŕi ontako beŕiak eta ¿orain kukuarena egin? Zer dala bide? Argitaratu leizken eŕi asko sortzen dira emen, baño egi-zalek» ezin nunbait ikusi zuz baimenagaz nik idatziko det ada eta ara:

LUISTAR IKASTOKIKO GORA BERAK

Luistaŕak «jo ta ke» gabiltz anzerki jai alaiak gertutzen. Orainik beŕiro «Melitonoren bi senaiak» eta «Matias Gezur zulo» anzerkitu ditugu garaipen aundia itziaz eta orain «Auek ixtiłuak» eta «Mendibetaŕen laŕiyak» ikasten giñaŕak ari gera.

Bada Otzaiła'ren 2'an beŕiz ere ai alai eta bikaña Aizarnaŕak. Igun oŕetan Luistar Ikastokian, paiz argi eta jakintsu batek itzaldi edo «konferentzi» egokia egin o du. Pozik argitaratuko nuke paiz agurgaŕi oŕen izena, jakin zkero, bañan ez dakit eta mutu gin bear.

Beraz, asko jakin aŕen, jakin aia aundiagua sartu zaigu. Luisaŕen Zuzentzaleak ARGIA asteo irakurtzeko esaten digu, irakurzen oitutziagatik, eta dakigunai z astutziagatik. Oraindaño beti rakuŕi izan aŕen auferuntz pozgo irakuŕi izan aŕen auferuntz pozago irakuŕiko det; nik bezelaxe bestiak, noski.

Nekazariak ere ez daude lo euren lanetan; batzuek bideak txukuntzen, bestiak ukułuak garbizen eta zelaiak zimaurtzen; bada denak arkitzen dute lan tresnak aun astindu ta.—*Egi txulo.*

Juan Antonio Orüs'en Drogeriya. | Usai goxozko ura ta beste geuzak.—Margogaiak: barniza edo labankiak, urdakiak (brotxak) igurki (zepi o) ta ebar.—EXPELEPARIA ere saigai gurean. Aberientzat ori bezelakorik e.z.—P. Verdura, 2. Tolosa. Ufutizkiña 196

EREGE OSTATU ZARA
(Gran Hotel Central)
JATETXEA
Mayor kalea 3
(Bulebar'eko aldameneau)
DONOSTIA

ALBIZTUK

OLO LAPURA URKIZU'N

Il onen 7'an gaueko zortzirak inguruan, eŕi ontako «Afozpide»'ko Laŕarte'tar Nikasio, gizon bizkoŕa, eta motelak ez diran Urkizu ta]aŕako «Soostizu»'ko Urdanpile ta'tar Jose eta Aizbitarte'tar Jose, osaba-iłobak, Tolosa'ko periatik etxeŕakoan ia Urkizu'ra iritxi ziranean... bizkaŕean mutur-zoŕo edo moŕala zemakian gizon aŕotz batekin topo egin omen zuten: eta beren agurari aŕotz oŕek ezer erantzun ez ziolako noski, gogan-beartu edo sospetxatu omen ziran moŕaldun oŕetzaz. Azerirenbat ote zan alegia. Eta aŕotz oŕi galderak egiten asi ziranean...?

Moŕal'dun ori—bideak utzita—
maldarik-malda igesi,
asi omen zan, bañan besteak...
antxintxika artan nagusi.

Zerbait buŕuka egiñ ondoren
makiła kendu eskuti,
t'era oŕetan atxitu zuten
lapuŕa oło ta guzti.

ANDOAIN'GO «BURUNTZAGAIÑ» IDAZLE EGOKIARI...

Agur:

ARGIA kuĩun onen azkeneko zenbakian itz ayek irakuŕi ditut: eta an esaten dirazunagatik eskeŕak demazkitzut adiskide maite oŕixe.

Zuk diozun egun artan ARGIAau argitaltzen dan etxean—zu ikusi ta ezagutzeaz—asko poztu nitzala badakizu. Eta zure naia, ni egun batean oŕera, zuen artera joatea izango litzakeala diozun ezkero... zure nai ori (beraxeago esango dizutana egiteko itzean) nere naia ere dalako, poz-pozik egingo det, Jaungoikoak lagun.

Nere osaba-izeba, lengusuak eta adiskide onak dauzkadan Andoain'a ¿pozez ez naiz bada joango? Bai orixe beintzat.

Aufez oŕera, zu ere, zure lagun eta nere lengusuakin beste egun batean eŕitxo onetara etoŕiko zeratela... zuek ere itzematea nai nuke?

Nai dezan garai eta eguna
zuk autu bada, laguna,
eta orduan poŕez zuengana
joango naiz, bai, ni Andoain'a.

Luistar.

Irakuŕi "Argia„

ALEGI

Juan diran egoaŕi-jai, Urte beŕi ta Eŕegenetan emengo dotriñako gela aundi ta apañean, Bitori, Saturaran, Lekaroz'ko ikasleak emengo mutilekin batian, antzezti ta teatro-jai atsegingaŕiyak agertu dituzte.

Oso txalotuak izan dira ta batez ere Iraola'tar Eusebio Bitori'ko apaiz-ikasle azkaŕa berak sortutako antzezkiyak aurkertuaz.

—Gure eŕiko alkate jaunen seme Pako, Jenaro ta Mañuel Goikoetxea Amerikaruntz joan ziran beren osaba Bahia-Blanca'ko alkatea dan Florenzio Ayestaran jaunarengana eta jakin degunez ondo iritxi omen dira.

Baita gure eŕitar on Karlos Aŕieta apaiz jauna Buenos Aires'en ongi luŕeratu dan beŕiyak ditugu. Asko poztutzen gera eta lenbailen beren eŕitxora osasunez eta Jaunaren graziyan biurtzea opa diyotegu guziri.

—Donosti'ko Antiguo'ko balaran juan dan iłean iltzan eŕi ontako alaba zan Joseba Peraza.

Emengo bere aizpa Joana ta bere pamiliyaren aginduz Kristo Gurutzekoaren ermitan bederatziuŕen łoat atera diote.

—Juan dan astean iltzan Mikela Iraola,on Filomeno Erziła biotz oneko damaren etxean urte askoan serbitzen zegona.

Neskame au izan da beŕogei urte oyetan eŕiko beartsuei, on Jose Manuel Lopetegi eŕi ontako ongile zanak jaŕitako eŕiala egunero banatzen ibiltzen zana. Urte onea asieratik bina eŕial ematen asi dira lengo ogeitamar beartsuei.

Mikela zana eŕiyan oso ezaguna nola baizan jende asko bildu zan bere elizkizunetara.

—Astelen ontan, peŕatokin bere lagun batzuekin itzegiten zegoala bat-batetan luŕera erori ta andik laixter il-da gelditu zan, biyotzeko atake batekin Aikixaneko nagusi Jose Manuel Laŕarte.

Gizon langile ta umiła izan da bere denboran eta oŕengatik bere anaiaren aldez uŕengo egunian elizan egin ziran iłeta ta gañerako elizkizunetara aide, lagun ta aizkire asko eldu zan.

Otoitz bana irakurle ildako oyen guztiyen alde.

—Joan Bautista Irizar'en emazte Kandida'k alaba bat izandu du a batayatzeakoan Jesusa Belen zena ipiñi diote.

Baita gure eŕiyan bizi dan bidezai edo Diputazioko kamiaero Raimundo Oyarzubal'en emazte Dolores Otamendi'k izan duen aŕa Primitiba izenakin batayatu dute gure Paŕokiko elizan. Zoriunak guziyei.

—Eŕi ontan igazko urteaen egeita lau jayo, lau ezkondu eta amairu il-tziran.

—Bitori'ko Seminario beŕirako ogeita bost peseta eman ditu emen go Sindikato Katoliko'ko langile bazkunak.

—Gure eŕetore jaunak, emengo katolikoen Batzar-tokian itzaldi-txo bat egin zigun, «Aita Santuen aukeratzia» gaya artuaz. Oso txalotua izan zan.

—Aurten eŕi ontatik soldaru joatera tokatzen zayotenak emezazpi dira eta joan dan igandean izan zuten beren bilera.

—Gure lagun Azurza'tar Jesus Bartzelona'ko Erakusketa ikusten egun batzuek igaro ondoren, angoedertasunaz aŕituta etoŕi da.

—Zubi-zaŕan erdian eta lenagokoa egon zan toki artan bertan Gurutze eder aundi bat ipiñi dute Alegitaŕen artean bildutako diruaren bidez. Orain beste Gurutz-bideko amairu gurutzeak ipintzeko asmoa artu dute.—*Moxkolei.*

YUTE OLAK
Ziriko (arpiłera), zoŕo, lokaŕi, txorte trenza) joskari, lokaŕitegiraako ari lodiakoŕo-mutuŕak lotu ta josteko ariak, eti abar. Zuzenpidea
VICTORIANO CELAYA
APARTADO 1.—ZUMAYA

ALTZA

Gure artean asiera zitala eman du urte onek b adaegun gutxitan eriotsa maiz acalduda alde abetan. Beste batzuen artean izan ditugu Eskalantegi baseŕiko Margarita emengo Mariaren Alaben batsordekoa. Beren sendikoak ondo ikusi dute bere obiratze eta iletan; zenbat adiskide zituan. Il onen 10'an beŕiz gure artetik juan zaigu betiko Zumalakaŕegi'tar Pranzeska jauna.

Zein zan uste det azaldu beaŕik ez dala izango. Altza'n eta baita ere Eŕenderi, Pasai, Donosti eta beste eŕi askotan lagun asko zituan, eta batez ere guk bere lagunak ondo dakigu zeiñ kristau zintzo eta euskelzale sutsua zan. Bere ezagunen artean etsairik izan ez zezaken gizon zan. Beste euskotar jator bat gutxiago! Esango degu Kampion jaunarekin batera: «Batzuek badijoaz; besteak etoŕiko dira»?

BESTE BATZUEK

Gaxorik arkitzenda Muxika'tar Balendin eŕi ontako Luistar eta izlari jatoŕa. Lagun zar, lenbailen osatu.

—Maritxalar'tar Meltxor ere arkitzen da gaxorikElizakoakartuta.

—Il onen 11'an ezkondu da Artxipi baseŕiko Arzak'tar Luis, Ariztizabal'tar Joseba neskatilakin. Zorionak.

Gure artean izan ditugu Agote'tar Pedro eta Kasares'tar Juan apaiz gazte jaunak.

—Emengo nekazariak ondo ospatu dute San Anton eguna. Goizian 8'terditan meza eto amaŕetan Meza Nagusia zutela. Ondoren asko bildu ziran ostatuetan baskaltzera.

Upel eta baŕikak asi dira beren baŕengo sagardo goxoa eskeintzen, bañan jendeak oraiñ artian aŕera ots xamaŕa egiten dio.

Emengo Luistaŕak dute gaur beren iłeroko Jaun artzia. ¡Ez utsegin mutiłłak! Eŕi ontako euskelzaleak beren lagun Zumalakaŕegi'ren alde Meza bat atera nai diogu. Adieraziko da zeiñ egunetan izango dan.—*Altzatar.*

BEGIKO MINA AL DAUKAZU?
Zoaz Vizente Loidi Jauna
begi sendagileagana
Avenida, 23, 2.° DONOSTIA

ARUA

ON MARZELINO EMEN

Gure Josetxo'k zapatuan sakristiyan entzuna, etxitzayon aztu. Igandeko meza nagusiya on Marzelino'k emango zuala ta, gure umiak bezela, bestiak ere, beŕi ori, eŕi guziyan azkar asko zabaldu zuten. Umiak egiyak esaten dituztela, ta ala gertatu. Aŕatsaldeko elizkizunan, eliza bete-beterik zegoała, bere itzaldiya pozik asko entzun geñion. Uŕengo bat arteba, on Marzelion!

SUKALDE BEŔIYA

Erkisketako Aristondo'tar Patxiku, ostegunian ezkondu zan, Zumaya'ko Aizpuru'tar Rufina'kin, ta Sansinene'ko lantegiaren inguruan sukaldetxo bat artu dute. Zorionak bizi bide beŕian.

OIKELA TA GUZI

Mendi aldea goazela eskuan aku łua genduala, aragitegi beŕiaren ate saŕeran, «Aragitegia Zubimendi» irakuŕi genduan. Aiñ leku egoki ta garbiya ikusita, beterinario ta meiku jaunak, ontzat emana dute. Gu beŕiz oŕetzaz gañera poztutzen gera, euskerazko itz oyek atiaren gañean ikusłiaz. Aŕera bada, Zubimenditaŕak!

BERTAKO SEME ARGIA

Erentxun'tar Juanito, gazte azkaŕa ta atsegiña, Tolosa ondoko eŕi bateko maixu egin dute. Eŕi eŕetako apaiz jauna, agintari ta gurasuak pozik egon leizke oŕelako suertiaz. ARGIA'ren etxinn, oso ezaguna da, Endoya ez izenez asko idazten baitu. ARGIA'ren bidez, zorionak bada Juan!

AINGERU BAT ZERURA

Estratako iłobatxo Maitxu, igandian il, ta astelenian bere ileta izan zan. Aingerutxo bat zeruan dutela jakiñik, gurasoak poztu biteż!

DEYETAN

Kojer'ko Eulojio'ren ezkontz deya, igandian izan zan. Donosti aldeko gazte batekin, entzun degunez.—*Zi lar.*

Dr. ARRIETA
Sudur, eztaŕi ta belaŕieteko sendagilea.
EUSKERAZ ITZ EGITEN DA
Prim kalea, 19, 4.°
Ufutizkiña 10644
DONOSTIA

Goikoetxea Zulaika'tar Jose
Ortzlaria
Mayor, 2, 2.° — DONOSTIA
Agiñak atera, konpondu, berian jari.
KONFIANTZAZKO LANA EGITEN DA, ONDO TA MERKE

AZPEITI

EREKETA

Orain dala egun batzuek ere da «Otzokue» deitzen zayon baseriya, eskeŕak lagun talde aundi batek atera zituztela aberiek; baita ere traste batzuk: onen jabia, Azpeiti'ko Nekasarien Alkartasunean bazkide da, beragatik jasoko ditu 2.500 peseta; alkarte onek urte bizuk baditu ta, estuasunetan maiko asko legortu izan ditu. Ilian peseta bat besterik ez da botatzen; talde aundiya da bañan oraindik artalde ontara bildu gabiak badira, ta gaur badakizute langintza guziyak alkartzen ari diranean, nekazariyak ez degula izan bear gutxigo, nai ez badegu orain arte bezela, ostikoka edozein zirtzilek ibiltzia; etoŕi danok Alkarte onetara gorputz bat egiten degula ez biaŕak datoztenian alkar jaso, ta astantzian iñork iseka edo burla egin ez deigun.

AGINTARI JAUNARI

Eŕaldoi edo jigante oyei gure ustietan bada ordua soñeko zirik oyek kendu, eta beŕi batzuek egiteko. Orain arte gure lepotik [illegible] eŕitaŕak naiko paŕe egin dute [illegible] kalera atera dien bakoitzian.—*Mendi.*

SEGUROAK AGIZKO ESKUER-EGINTZA
Donostia'ko Agintaritza — [illegible] 2, 1.° - Donostia
[illegible] Londres'ko «Northern [illegible] Insurances Company Limited
Suaro (sualdi-aŕizkuŕe [illegible] on diŕiteko eritasun, eta beste edozein eri edo gaxotasunaren aldaretzaz, eta automobil, kamioi, motoziklete [illegible] abar. Eskier-egintza
«La Francion [illegible] Agizko Eskier-Batzuna
Itxasoz eta lufez bidaiatzen diran salkaiek Eskier-egintza (transportes, expediciones)

ERBITI-ETXEA
PIANOAK
PIANOLAK
GRAMOFONOAK
PILARMONIKAK
EDOZEIN MUSIKA-GAI
SAN MARTIN KALEA 28'n
DONOSTIA

Ongaŕiak (adonuak)
Adaŕ auiza, eta oiñazkai zeau ia kiskiduz ongaŕirako; masti, sagasiu besue edozein luŕ ongaŕitzeko ixi egokiak. Zumeŕakin nastuta asko re biłi ei ce.
LEGAZPIA'ko OLA'n, LUGIN [illegible] ta SINDIKATUETAN
U. SEGURA.—Legazpia (Guipuzkoa)

Kataŕo, sudur-estu ta gañerako suduŕeko
eta eztaŕiko gaitzak maiz etortzen al zaizkizu?
Batere zalantzarik gabe ta itxu-itxuan
Dr. ASUERO'ren BIRKA sendagallia
erosi ta artu zazu.
Eritasunai auŕea artu
Gaxotasunak osoro sendatu
BOTIKA TA DROGERI ON GUZTIETAN SALTZEN DA

BANCO GUIPUZCOANO
JABIEN ARTEKO DIRUTZA: 25 MILOI PESETA
ORDEZKARIAK: Askoiti'n, Azpeiti'n, Bergara'n, Bilbao'n, Bilbaoaurre'n, Deba'n, Eibar'en, Elgoibar'en, Ermenteri'n, Irun'en, Mondragon'en, Otati'n, Oyartzun'en, Pasaian, Tolosa'n, Zarauts'en, Zestoa'n, Zumaia'n eta Zumaiaga'n.
Eunekо 2,00 an gordeako diruai, nai denean ateratzeko eran, bai pesetetan, bai frankotan ta bai ingeles esterlinetan. Eunekо 5'an, zortzi egun aurerik irugaŕi edo abisua emaiskotes. — Noranaiko diru-artzeko itzaki edo karta. Diru-biaŕkeia. Diru-gordeketa. Diru-etxe arteko eginkeia. — Aldi jakiberako diru-jartzea: iru ilabeterako, eunekо 3,50; sei ilabeterako, 4; urteoere naiz geiagorako, 4,50. — Zerbaitzo emanda guziia kutxa gogoŕetan, gorde liezke bai paŕio aundiko pizkak, bai aiol aundiko paperak, bai diru-txartelak, abar eta abar. — Zernaiko diru artu-emanak, alda etak, eroskeiak ere gordeketak.—Ordu egokiak; Goiteko 9 ta 1/2'etatik ordu 1'ere; ofetsaldeko 3 ta 1/2'etatik 5'ak arte

BEIZAMA

Badira egun batzuek Loinaz'tar Karmelo eleizako organoa ongi jartzen asi zaigula. Langile ona da eta uste degu soñu goxoak entzuteko eran, beŕi beŕia bezela jariko digula.

Garai batean etxerik etxe bizkaŕean ekartzen zituzten zapiak saltzen ibiltzen ziranak, oraingo aldian automobil ta guzi izandu dira. Eizitzako maiak gorakoak eta berakoak dira eta oiek baŕeñekotik goenera igo dirala dirudi; goeneko maiatik asi ta baŕenekora erortzera ainbat bada noski.

Aurtengo neguan emengo mendiak elufik gabe ikusteak aŕituriik gauzka eta oŕela jaŕaitzera ezagutu dan negurik biguñena izango da.

Orain egun batzuek Gaztañ'tar Ramon larogeita bost urte mundu ontan igaro ta il zan. Bere bizi itzan saŕitan ibili oi zuan Jesusen lizena bere mingañean eta eraspen eder oŕen bidez ezin gelditu Zeruko eŕeñuan sartu gabe.

Eren ama zanaren urtebetetzeko eleizkizunean emen izan dira Otaegi'tar Julian, Juan Mari, Gilermo eta Telesforo senide alkar maitenak.—*Igaratxo.*

DONOSTIA

IMAZ ETA BESTE

Imaz'tar Norberta (G. B.)ren gogo aldez, igandean egin zan paupara, ozte aundia bildu zan Berau egiteko, diru ta laguntza eskeñi ta eman diguten guziari, eskerik asko.

—Deun Sebsaten egunian, Eusko Etxean egin zan antzoki jaian, iñoiz baña jende geiago izan zan. Algara ta paŕa antxe bazan.

Uŕengo antzoki jaia, J. I. gaur zortzi izango da, antzezturik Altza a jounaren iru ekitadi ditun antzerki eder bat.

—Laixter ezkontzen dira, gure lagun Irazusta'tar Xotero, donostiar jatoŕa, ta Olea'tar Sorkunde, euskel iztundeko antzeslari trebe ta neskatil liraña. Zorionok.

...kalerik kale danbara juaz
umore ona banatzen dijuaz

umore ona ez dakit, baña, zaraita, iskanbila ta dantza lotua, bai beintzat banatzen da ta oraingo «emboŕada»'n juaten dira, Sebilla'ko «donostiaŕak». Oik ez dira donostiaŕak, «San Sebastianeŕaks» baño.

—Batere politika gabe, «Fizkunlea» izenakin, bazkun beŕi bat Bilbo'n sortu da.

Gure ele, dantza, ta abar, zabal [illegible] asmoz noski, onetxek asko [illegible] Donosti'ko euskalzale[illegible].

Landu gogoz, bilbotar anaiak, balez ere gure izkuntza zabaltzes, zer ta nun zan egin badago ta.—*Atafene.*

ETXEALDIR EDO FINKA SALEROSKETA (FINKAK EROSI, NAIZ SALDU), ETA HIPOTECA ORDAIN EDO PRESTAMUAK
xupean eta laister
egiten diru artu-emanak
Lantegia (Oficina) 10'etatik 1'era eta 5'etatik 6'etara idekia.
GARMENDIA
Reina Regente, 3.—Donostia,
Ufutizkiña, 18217

EŔENDERI

URTEKO GORA BERAK

Igaro dan urtean jaioak, iłak ta ezkonduak obek dira: Jaioak 223, iłak 103 at ezkonduak 41.

EZKONTZA

Igaro dan astean beren betiko uztartza artu dute Pedro Antonio Elgaŕesta emengo neskatil on Bitoria Zapirain. Zorionak ta osasun on bat izatia opatzen dizuet.

IBILI ALDIETAN

Barzelona juana degu gure txaun buru edo bikario jauna. Ongo ibiltzea opatzea diogu.

Baita bere egin biar aundi batzuetara irten da Balenzia'ra Albizu'tar Klaudio. Ondo ibili.

GURE POZGARIA

Juan dan asteko ARGIA'n auŕe aldeko argazkian zekaŕen irudi eder bat, emengo seme Jaupari gazte azkaŕa, Jauregi'tar Luis jauna.

Fozgaŕia da bai olako seme azkaŕa ta langilea ateratzea, alde uztietan euskerai lagundu ta go atzeko asmo bizia du ta sutsua du.

Artu itzazu nere esker ta zorion sutsuak ta auŕera ere jaŕaitu Jaunak ala naiŕik.

ELIZGAIAK

Igaro dan igandean irugaŕentaŕen Jaunartzea izan genuan, irugaŕentaŕak Jaunartzeko garaian egundaño egn eztan eran egin dezu, guztiok abestu ennan biñ eder ki.

Aŕatsaldian beti bezela lekaide agurgaŕi batek txonitzaren aufetik, lengo ilean il diran irugaŕentaŕen agerketa egin zuan, au da Elizegi'tar Domingo, Laŕea'tar Juan Maria, Arzapita Ruiz, Petra Laŕarte, lau nek il dira. G. B.

Agindu dan lez beren gogo aldez eskatu biar degu.

DEUN ANTONIO'N EGUNA

Egun alaigaŕia izaten da baseŕitaŕen artian. Geinak egun ortan Jauna entzun ta gero alkaŕekin bazkeritzo bana egiten dute: ondo egiña. Anaitasuna bazkide edo Kofradia.

Urtero egun ontan beren gorabeŕak ta lendakari beŕitzea egiten da.

Lendakari izendatu dutena au da Lafuskaiñ'tar Jose Maria gizon on ta bere gora berak ondo ibiłiko dituana.

Igande ontan gaixo itxeko edo ospitaleko txadontxuan anaitasunak baseŕitaŕak Jaupa bat aterako dute, goizeko bederatzietan. Etosaldan guztiak Jaupa onetara.

JUAN TA ETOŔIAK

Madrid aldera juan da Uŕeizticta'tar Luis emengo idazlari azkaŕ. Ondo ibili.

—Emen agurtu degu Elizegi'tar Franzisko Jaupari gaztea. Ongi etoŕia emengo seme azkaŕa.—*Itufalde.*

Ama onetik edo afausiz onetik txito edeŕek ateraako zeiskigu. PUTNAN izeneko arazileak saigai. Bikoiti nekazari, irabari eundiek egiteko jo nere etxera.
Sotero Zamakola. Eibar (Olaŕcaga

ELGOIBAR

ERIOTZA

Igandean il zan, Iriondo'tar Tomas. «Beko etxekoa» ogeta lau urteko mutil gazte ta luistar zintzoa. Atsekabian laguntzen diet bere guraso, anai aŕeba ta gañerako guztiei. Aita gure bat, irakurle, bere gogoaren alde. G. B.

—Gaixorik arkitzen da «Ertzil»baseŕiko amona.

—Baita «Uŕateiko» andre gaztea ere: laster sendatzia opa dizuet.

—Igandeko koŕikalariak diraiata, naigabe gogor samaŕa sartua izan besteu baseŕitan; zer uste dezute bada? Jokua ezda eŕenta, łapoia obe da eŕeta.

ZAMA MIRARIGILEARI

Iru uŕen bat egitera dijuaz Ilaren 25 ta 26 ta 27'an Eŕuki Etxeko Elizaldean; itzaldiak egunero izango dira.

G. M.

YOLANDA
2 peseta

IRUN

«Mutila» il da auŕeko astean. ¿Nor zan «Mutila»? Eunta-laregeita-amabost (1|195!!) kilo azta edo pisuko gizaseme gazte bat. Etruen maltzurkeri andirik biyotzean gizaraiyoak: ezagun zuen bere arpegira begiratuta. Kristau zintzoa zan. Izoki-aŕantzale trebea.

Lanak eman zituen bere gorpuloŕak; zalpurdira eramateakoan, eta, gero, zalpurditik il-obira aldatzerakoan.—*Kresala.*

Baseŕitaŕak
Lore, landare ta barazki mota guztietarako aziak.
Villa Maria Luisa
ERNANI, 2 —DONOSTIA
10589 ufutizkiña

LASARTE

ERIOTZA

Jun dan astean il zan Zabaleta baseŕian Ezkiaga eta Elizegi'tar Josefa Antonia andrea łudi onetan, 88 urte igaro ondoren. G. B.

Bere gogo-alde egindako elizkizunetan ozte aundia bildu zan.

Laguntzen diet atsekabean bere sendikoai eta irakurle guztioi Aita guretxo bana eskatzen dizutet.

GAXORIK

Birikeri (pulmonia) edo dalako naitz biuŕi oŕekin oso gaizki arkitzen da ain ezaguna dan Ołokiegi'tar Inazio jauna.

Lenbailen sendatzea opa diot.

JOLASAK

Gaur eta aŕkaitza zelaian ostiketa partidu eder bat izango degu. Iruña'ko Aurora'k eta Donosti'ko Esperantza'k jokatuko dute.—*Saldatxur.*

Señeko ebakitze irakastela
Aurkezti eguneau erakasten da IZA'tar EUJENIA: moda gaztelako jantziak: [illegible] «Sagardoi»'tzaz
Maistrak euskeraz itz egiten du
San Martin kalea, 18, 4'en bizitza ezkerretara
DONOSTIA

LEGAZPI

JAIOTZA

Arostegi'tar Andoniñ emazteak aiabatxo bat izandu.

Zorionak.

—Ezkon deiak amaitu ondoren aste onetan ezkonduko da Etxeandi baseriko Etxtberia'tar Francisko Oñatiko mutil batekin.

Alkaŕekiñ urte askotan izatea opa dizuet.

—Bartzelonan egun batzuek egin ondoren biurtu da Brinkolako jaupari Sariegi'tar on jeronima.

GUDARITZARA

Aste onen baŕuan Donostira juango dira Iturbe'tar Jon, Elorza'tar Jon eta Suza'tar Dorotta.

Egon aldia ondo igaro eta lenbailen etxeratzea opa dizuet.

—Uŕengo urtean juan bear dutenak ere ari dira antolatzen oran daŕokoak 22 dira.

JUAN DAN URTEKO GORA BERAK

Jaiotzak 53, Eriotzak 25, Ezkontzak 6.

Igaz baño 4 jaiotza eta 4 ezkontza gutxiago eta erioza geiago?

—Santa Krutz apaizan bizitza emen dankagu salgei 2'ñá lauriko.

Ekatu ARGIA saltzaŕe eta Saravola ta Isidran dendetan. Azkar ibili bestela esku utzik izango zeraie.

ANTZERKI JAIA

Lengo igandean emengo ikastolan eta bertako neskatxoen artean eratuta izan genduan antzerki jai polita bat.

Bertan antzertuak izan ziran «El dinero de las niñas», «Kontxesi ta Asxentxi» eta bakar izketa oek «Jemaculada» «Al niño Jesus» eta «Ume nekeak», denak oso politak eta antzezlariak ere ederki bete zuten beren lana, naikoa paŕe eragiñaz an bildu zan osteari, txalo edeŕak entzun zituzten.

Zoriònak denoi eta batez ere bertako irakasle eta antzerki antolatzaĩt Zapiain'tar Juanolei ain jai edeŕa eratu zigulako eta ia lenbailen bestebat izaten degun.—*Argizaŕ.*

DATARITA, ALTUNA ta MENDIZABAL
1446 UFUTIZKIÑA
DATARAK.—MARKADUN SIGARIAK
PRODAKO ARNO NEGOZIAK

LOGRAÑO BERRIA
ARNOGILAK TA UREARDOGILAK
Lehen-egintzako Bulevar, 20. — BILBAO